# IRUNgo IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA **2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK**

***Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua***

*Laguntza teknikoa:* ***ELKARREKIN 21***

# Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

**24 urte beranduago,** esanguratsua da **Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.**




2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

**Aduna, Alkiza, Amezketa, Andoain, Arama, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena** (eskualdeko ekintza-plana), **Donostia, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama y Zumarraga.**

# Nolakoa da **gure eskualdeko ekintza-plana**?

**16**
**Helburu estrategiko**

**242**
**Ekintza**

**28**
**eragile ezartze-lanetan**

## Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua 15.000 biztanle baino gehiago duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **handiagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikatuta dauden eragile-kopurua ere** lurraldeko batez bestekoa baino **handiagoa** da.



# Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

**%29a** ezarri da bere 1. urtean




Irungo II. Ekintza-plana **bere 1. urtean lortutako ezarpen-maila oso positiboa da**; izan ere, Ekintza-planen indarraldiaren 1. urtean lortu beharreko helburuaren (%18) gainetik kokatzen baita. Era berean, Irungo Planaren ezarpen-maila antzeko tamaina duten udalerrien batez besteko balioa (%15,3) baina altuagoa da.

# Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Adierazgarria da Planaren 1. urtean aurreratua, amaitzen edo amaituta zeuden ekintzak ia %40era heltzea.

Bestalde, ekintzen %62a hasteko edo hasita bazegoen ere, Ekintza-planaren iraunaldia 10 urtekoa dela aintzat hartu behar da (2015-2025).



## 2015ean amaitutako edo amaitzear zeuden ekintza adierazgarri batzuk:

1.1.3. Gain Gainean parkea garatzea, hiritarrek espazio honetaz gozatzeko azpiegitura egokiak kokatuz (jolasteko guneak, etab.)

3.4.5 Bizikleta gaineko udal-zaintza ezartzea

4.3.8. Materia organikoaren gaikako bilketa materia organiko guztira zabaldu ala ez aztertzea, alegia, landare zein animalia jatorriko zatikiak barneratzea

10.3.1  Kultura arteko bitartekotza garatzea, atzerriko biztanleriaren perfil bakoitzari egokituz

14.3.Gizarte-bazterketa egoeran dagoen biztanleriari oinarrizko kirol zerbitzu baterako sarrera erraztea (polikiroldegietako abonuak)

## 2015ean hasteko dauden lehentasun altuko ekintza adierazgarri batzuk:

3.1.6 Jaizubia eta Behobia arteko lotura sortzea, hiru udalerriak elkartu eta badia-ertzeko bidea garatuz5.1.4  Jarduera-lizentziak emateari buruzko prestakuntza eta elkarguneak ahalbidetzea

4.3.9 Erakunde publikoei biohondakinaren gaikako bilketa homogeneizatu dezaten eskatzea, gaika biltzen den materia organikoaren izaera berdina izan dadin Gipuzkoako lurralde osoan

8.2.4 Hiritarren partaidetzarako formatu berriak aktibatzea edo egun daudenak birformulatzea, erabakiak hartzeko sistemak gehiago aktibatu ditzaten

9.5.2 Fisikoki zein ekonomikoki pertsona guztientzako irisgarria den komertzio, turismo eta aisia bultzatzea

# Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



# 2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

## BIZTANLERIA OSOARI ETXEBIZITZA DUIN BATERAKO SARRERA ETA BIZI-BALDINTZA EGOKIAK BERMATZEA: %4ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Esparru ezberdinetako gizarte-eragileek etxebizitza duin bat izatea erraztuko dien programak bultzatzea, eragile-talde bakoitzaren behar bereziak kontuan hartuz
- Etxebizitzen birgaitzera zuzendutako neurriak garatzea

## HIRIAN PERTSONEN BIZIPENEN ALDE EMOZIONALA ESNATZEA, PERTSONEN ARTEKO KALITATEZKO ERLAZIOAK SUSTATUZ ETA ONGIZATEA HOBETUZ: %4ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Emozioen katalogoa definitu eta hiri esparruan emozio ezberdinei lotutako bizipenen diagnosia burutzea
- Udaleko komunikazio bideetan emozioak txertatzea
- Emozio positiboak sortzen dituzten elementuen promoziora eta emozio negatiboak sortzen dituzten elementuak zuzentzera bideratutako ekimenak garatzea

# Partaidetza TA21en baitan

PARTE-HARTZE MEKANISMO NAGUSIAK: GAIKAKO AHOLKU-KONTSEILUAK ETA PROIEKTU ZEHATZETARAKO PARTAIDETZA PROZESUAK

IRUN 21 KONTSEILUAREN 5 BILERA (TA21en organo aholku-emailea)

60 BAT PARTAIDE IRUN 21 KONTSEILUKO BILERETAN: 18 EMAKUMEZKO ETA 42 GIZONEZKO

LANDU DIREN GAI NAGUSIAK: TA21EN II. EKINTZA-PLANAREN DISEINUA, ZENBAIT KALEREN BERRURBANIZAZIOA, AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK, ESKOLAKO AGENDA 21, ETAB.

PARTE-HARTZEN DUTEN ERAGILEAK: ARDURADUN POLITIKOAK, TEKNIKARIAK, BANAKAKO HERRITARRAK, ELKARTEAK, ESKOLA-KOMUNITATEA, ETAB.

# Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (**www.irun.org** web gunean eskuragarri)

